

Pepita Goikoetxea Agirre

*Zarautz,
Gipuzkoa (1934)*

Aurkibidea

Biografia



Sakoneta baserrian jaioa, trenaren langileburuarekin ezkondu eta harrezkero "Izar alde" etxean bizi izan da Astin, Sakoneta azpian. Zazpi seme-alaba izan ditu. Baserri ingurukoa, bertako hizkera du, eta baserriari buruzko kontuak kontatu ditu. Azken 40 urteetan egunero azokara joan izan da barazkiak saltzera.

Zintak

ZAR-027

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Data:** 2005-05-06
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Bizi guztia azokan

- **Erref:** ZAR-027/002
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:

<p>Gizona treneko "katapaza" (capataz) zen. Bera baserritarra izan da beti, baratzea izan du, eta bere bizitza azoka izan da, "biziyua" bezala.</p>

Transkripzioa

- Zer da katapaza, esan dezuna zure gizona...
- Ba, katapaza, lehen, ba, oaiñ obretako katapaza bezela ba, trenbiretako katapaza. Hemen trenbiretako katapaza, e...
- A, konpontzen daona?
- Bai, trenbireko langillak? Ba, haiei aintzen ziyuena, ba, enkargaua bezela, lehendabiziko enkargaua bezela, enteitzen dezu? Bai. Eta, geo ba, oaintxe dala beatzi urte hil zan, eta ni hamentxe nao alargun. Hiruroita bi urtekin alargundu nitzan, eta orduan, ba, bueno, semiak etortzen zaixkit asteburutan lanea batzuek, ahal duenak, eta nik zerbait sortzen baldin badet plazako, ba, beti nere biziya plazan izandu da. Iya-iya esaten det, ba, biarren etxia 're badetela plaza, ta hangotxe jendian tertuliya, diru poxa, lehen beharra, baiño oaiñ hainbesteko beharrik ez. Baiño...
- Entretenimendua.
- Nere entretenimentua bai, hola esan nahi nuke ba, biziyua bezela. Hara jun gabe gogo onik ez. Bakizu, hoixen.

2. Sakoneta baserria gerraostean

- **Erref:** ZAR-027/003
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Sakoneta baserrian jaio zen, eta hantxe bizi zen. Anai-arreba asko ziren. Umezaro zoriontsua izan zuen. Baserri txikia zen, baina goserik ez zuten pasa: babarrunak, txerria, taloak... Goserik ez. Sei urtera arte jostatu eta itulan egin, besterik ez. Gero San Pelayoko eskolara.</p>

Transkripzioa

- Eta jaio ziñan Sakoneta baserriyan...
- Bai.
- ...eta zenbat senide ziñaten edo zein bizi ziñaten, Sakonetan?
- Ba, lau senire giñen ta aita-amak. Bai.
- Amonik eta ez.
- Zazpi urtekin hil zitzaiten amona han, bai, ezautu nuan amona, bai.
- Orduarte Sakonetan bizi zan amona 're.
- Bai, bai. Eta orduan, ba, hemeretzi urte, hogei eiteko neola ezkondu nitzan eta segituan haurdun gelditu nitzan eta hogei urteako ama in nitzan.
- Gaxte.
- Bai, bai.
- Eta, nola gooratzen dituzu zure, e, jaio ta lehenbiziko urte, umetako... ze giro zan itxian, edo...
- Bai, oso polita genduan.
- Bai.
- Aita udaran baserriyan [...] behar izaten zan, baiño neguan basarriyan ez zan hainbesteko lanik izaten eta orduan juten zan ba, ingurutako basarrita ba, ikuilluak konpondu eo [...] ekartzea. Eta, geo ba, aitagartean ziun hau ein behar da bestia ein behar da ta guk eiñ, eta...
- Baserri haundiya al zan, ganaua ta asko, edo?
- Ez, ba, ez. Beti ba, bost sei bat behi eoten zian ta geo txahalak, bai. Hegazti batzuek eta basarri hain haundiya 're ez da, txikiya da, biribilla da polita da, baiño mendik eta ba, ez zun bereikan, eta hantxe bakizu, esaten det ba nik, ba. Talua jan nahikua!
- Bai.
- Goseik ez giñun izaten.
- Ez? [...] juxtu gerra garaiko...
- Bai, bai. Hiru bat urte o hola izango nitun nik.
- Bai.
- Bai, ni gauza gutxi gogoatzen naiz, ezta? Eta, ba, esaten det, goseik eta ez giñun pasa. Txerriya izaten zan, babarruna faltaik ez zan izaten, artua ereiten zan, gariya ereiten zan. Orduan etxeko kosetxakin ba, fameliya mantentzen zuen gure gurasuak eta handikan ba, eskola juten giñan San Pelaioa.
- San Pelaioa, noa?
- San Pelaion eskola, San Pelaion beti eskola bat...
- Hor zahar etxia [...] hortan?
- Bai, bai, bai, hortxen. Eta, orduan, ba sei urtekin hasten zan garai haitan eskolan eta sei urte arte ze ingo giñun, ba? Ezer ez, jostatzen ta, ganauakin soruan ittulan ein ta. Eta geo eskola, ta behiñ hamalau urte ezkeo...
- Ittulan nola ibiltzen ziñaten, nola? Zer zan ittula hori?
- Ittula da ba, sorua ganauakin jiratu behar danen lurra, ta ganauan aurretikan, ba aita atzian jartzen zan herreminta manejatzen eta gu aurretikan ba makil batekin, ba, ganauak arrastuan txuzen eramaten, e, behiak eo iriak o txuzen eramaten. Ittula horri deitzen giñon guk. Gaurko eunian ez da holakoik izaten, dana traktore ta zea izaten da, baiño orduan

hala izaten giñuan. Eta ba, aita kriston langillia giñuan, lanen bapo eakutsi ziun, geroztikan 'e beharren, lanen, asko ikasi behar izan det eta orduan ba, lana ta lana eta lana.

3. San Pelaioeko eskola eta irakasleak

- **Erref:** ZAR-027/004
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

San pelayoko eskolara joan zen. Neskak eta mutilak banatuta izaten ziren. Irakasleak, Josefa Lekuona eta Aurelio Gonzalez.

Transkripzioa

- Ta eskolan, ze, hor San Pelaioeko eskolan, nexkak alde batetik ta mutillak bestetik...

- Bai, bai, behian izaten zian mutillak eta goian izaten zan... bai, bai, bai.

- Gooratzan al zea maistran baten izena, edo?

- Bai, Ziotzakua, Ziotzakua, Josefa Lekuona zan, Ziotzaneko alaba zan. Eta, maixua berriz, behian orduan Aurelio Gonzalez, bai. Eta, kalea juteko goguakin eoten giñan, ama esniakin juten zan karruan hartuta etxetan partitzeko eta, orduan, ba, etxen gelditu ezkeo lana in behar izaten giñuan, eta, aunke sea, goizian pare bat ordu amakin esniak eta partitzen ta.

4. Umetatik esne-partitzen

- **Erref:** ZAR-027/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Umetatik amari esne-partitzen laguntzen zion. Karro txiki batekin egiten zuten; lehenago asto-otarrekin ere egiten zuten, baina bere garaian karrotxo batekin. Hortik aparte, jolastu.

Transkripzioa

-Laguntzen zeniyoten orduan?

-Amai, zea, esniak eta partitzen eta? Bai, bai, bai.

-Eta, nola iblitzan zan, karro batekin?

-Bai, karruakin, bi erruberako karro txiki batekin, asto txuri txiki bat zan eta, aizu, gustora ibiltzen giñan.

-Bai. Orduan asto asko eta karro asko ta izango zian hemen?

-Bai, bai, bai. Nik karrua ezautu nuan lehenaotikan, ba astaotarrakiñ o, otarrak jarrita ta hola, lehen lehenotikan, ezta? Baiño ez, gu beti karrua, nik karrua ezautu nuan, karro txiki bat, bi erruberako karro txiki batekin ba

esniak hartu, euneroko esnia ta haiek partitu, ta geo ba, zian nezesidadiak etxea ekarri behar zianak ba, ekarri ta kaleko bueltatxua hola eiten zan, pare bat orduko bueltatxo hori izaten zan. Eta, hantxe. Bai, eta geo, soroa jun giñan, soroa, ta geo illuntzian, euna luzia zanian, este, bukatzen zanian aitag ikuilluko lanak eta eiten zitunian, eta amak afaya prepaatu bitartian ba, kanpuan koxketan in ta, entroka in ta, bai, holako zeak izaten giñuzen, xakaponetan ta, bai, kaniketan ta.

- Baita!

- Jolas zea batzuk, sentzillo batzuek, gere arten asmatzen giñun jolasak. Oso diferentziak gaurko eundikan, bai, bai. Osea ke, orduan gauza gutxikin bizitzen zan. Bai, ta gurasuak sekula eskatu behar ezer esanikan ere ez zitzaiuen iruitzen, ez. Erropa 're askok eman iten zuen eta, bakizu, haundixeua-txikixio, laxaixio, estuxiaua, hua jantzi ta segi!

5. Arropa berriak jai egunetarako bakarrik

- **Erref:** ZAR-027/006
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:10:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Arropa jai egunetan estreinatzen zen, Ostegun Santutan-eta.</p>

Transkripzioa

- Badao hor, e, erropa berriya iteko egunen bat eo, zuek iten al zenuen halakoikan, Ostegun Santuan edo?

- A, erropa berriya? Hua jaitako ta zan, e!

- Hua jaitako.

- Jaitako, jaitako ta. Zapatak beti, bai zapata izaten giñuan. Ni ez naiz konturatzen, ba, kalea albarkakin juten nintzanikan. Zapatak, baiña haiek beti jasota. Albarkak eta horrela ba, etxian ibiltzeko, e! Ta oiñetako zaharrak eta beti. Zapatak gomazkok izaten zian ta haiek etxian ibiltzeko baiño kaleako beti, o Ostegun Santutan ta orduan ba, beti erropa bat, aizu, jaitako. Hua prexixo, jaitako, mezeta juteko, ta holako izaten giñuan.

6. San Pelayoko eskola eta irakasleak

- **Erref:** ZAR-027/007
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolara ez zen gogotsu joaten, baina ez zuen piper askorik egiten. Bere anaia nagusiek gehiago, mendian laguntzeko... Eskolak erdaraz izaten ziren. Eskola ez zen gogorra izaten, eta etxeko lanik ez. Adin guztietako umeak batera.</p>

Transkripzioa

- Eskolan zenbat urte arte ibili ziñan?
- Hamalau urte arte.
- Hamalau urte arte.
- Hamalau urte arte, bai, bai, bai. Hamalau urte arte.
- Eta kontinuo edo piper asko iten zan? [...] askotan...
- Ez, nere senire zaharrauk, bi zaharrauk, lau gea ta bi zaharrouak, haiek igual ba mendira jun behar zanen ta beti zea gehixo, ezta?. "Ez dao juteik gaur" ta, "hau dao in beharra" ta hola, baiño ez, ni ez nitzan gogotsu eskola juten, ez. Kobardia nitzan. O batek burla ein ziala ta, "ai, burla in die aita, ta ez det nahi jutia" ta erdi nearretan ta abar ta, ba. Baiño ez, piper asko ez giñun iten, ez.
- Ze erakusten zizuen, euskeraz?
- Bai, bai, bai. Bai! Euskeraz ta erderaz ere bai. Ez, erderaz, zean, eskolan erderaz eiten zan, e!
- Bai.
- Bai, eskolan erderaz. Gaiñuntzeko etxeko bizitzan euskeraz. Baiño erderaz. Eta, ba gaurko eunian ez dakit, ez erderaz ta ez euskeraz.
- Euskeraz, bakizu, emakumia, hoixe!.
- Ez, ez baiño ni bi illobakin hasten naizenian hizketan ez [...] ulertzen.
- A, bueno, baiño diferencia...
- Ta esaten dioet, "aber, hori esan diazue erderaz porke nik ez det hori ulertzen, ta". Eta, [...] oaintxe ez dakit ez erderaz ta ez euskeraz. Erderaz ere fazilidade gutxi xamar dakau, eta bueno, baiño defenditzeko lain bakigu, bai.
- Oso ondo. Ta, garai hartan eskola zuk nola gooratzzen dezu, gogorra, e, asko [...] zuen edo zuei ez zitzaizuen holakoik tokau?
- Ez. Ez, ez. Eskolan eiten zian [...] debereak bakarrikan, etxeako ez zian izaten ezertxo 're. Ez, ez, ez, ez, ez. Eskolan, bakizu, sumar ta restar ta problemak eta handikan atzea, ba ez, multiplikar ta.
- Eta hola bronka haundikan eman 'e ez, ta...
- Ez, ez, ez, oso maixtra ona giñun, e! Oso goxua zan ta, ona. Behiñ 'e kastiguik izan unikan ez naiz gooratzzen eskolan, e! Ez.

7. Komunio handia pozez egiten zuten

- **Erref:** ZAR-027/008
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:12:05. **Bukatu:** 00:13:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Komunio handia eta txikia (zazpi urterekin). Komunio handira pozez joaten ziren, arropa berria, soineko zuria... Permanentea ere egiten zen. Bikarioa don Meliton zen. Jaunartzeak parrokian egiten ziren. Orduan parrokia bakarra zen Zarautzen, eta elizkizun guztiak bertan egiten ziren.</p>

Transkripzioa

- Ta gooratzzen al zea zure lagunkidiak o ikaskidiak o zein zian o?
- Bai, bai orduan ez zan izaten adin batekua bakarrikan...

- Bai, danak nahastuta, ezta?

- Danak nahastuta izaten zian ta, asko! Hillak 'e badia mordoska bat eta. Geo lehendabiziko jaun hartzekuak ere goguan izaten dia zein izan zian, halakua bai, alkarrekin komulgatuak gea, komuniyo haundiya iten zan orduan, e, hamabi urtekin.

- Komuniyo txikiya noiz izaten zan?

- Ba zazpi urtekin.

- A! Zazpi ta geo...

- Bai, uan ez naiz asko gogoatzen zeintzuk ginan, baiño komuniyo hanundikuak bai, batzuk bai, bai, dexente gogoratzen naiz. Hua hamabi urtekin iten zan, ta orduan ba, beti pozak eoten giñan, bai. Bakizu, erropa berriya in ta, aizu, soñoko zuriyakin ta. Komuniyo haundiya eitea ta, bai, ta ondo. Ta, txikiya zuriz ez giñun in, txikiya izaten zan bestelako erropakin, normalakin. Baiña komuniyo haundiya ya orduan ba soñokuakin izaten zan. Bai, gustoa ta, geo, ba, permanente 're eiten zan orduan ta, permanente inda ta, bai.

- Nun ein zenuten komuniyo txikiya ta haundiya, hor San Pelaioko elizan?

- Ez, ez Parrokin.

- A! Parrokiyan iten zan orduan.

- Bai, bai, bai. Parrokiyan iten zan, bai. Orduan Zarautzen Parroki bakarra zan daneako. Entierruak eta danak Parrokiyan iten zian.

- Ta, ze apaiz zan orduan, goatzen zea?

- Don Meliton, bikayua zan; geo Don Luis Azpiazu, eta... Don Luis eta Don Juan. Don Luisek ez dakit ze apellido zun, Don Juan Azpiazu ta geo Don Juan "Xarra" ta, hola zian apaizak, bai. Bai, geo beste batzuk ere bazian baiña ez naiz oso... gogoatzen oain izenakin ere. Holaxe zan.

8. Asti inguruan tabakoa ereiten zen

- **Erref:** ZAR-027/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:13:35. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Asti inguruan tabako asko egiten zen. Sekadore bat ere bazen. Berain ingurua nahiko behean zen, eta uholdeak izaten zituzten sarri.

Transkripzioa

- Ta hau, hemen Sakoneta baserriyan, hemen Asti inguruan orduan, nola gogoratzen dezu umetan, e, inguru hau?

- Bai, inguru hau ba, dana oso behian zan eta uholde haundiak, ebite haundiak iten zitunian ba, ujalak harrapatzen zitun asko.

- A, bai, e?

- Bai, ujalak harrapatzen zitun asko. Eta, orduan ba, tabakua ereiten zuen hor kanpo futbol alde hortan, tabakua ereiten zuen eta oain txiringitua daon hortan ba, zea zan, sekadora [...] deitzen ziyoen pabelloi haundi bat, ba, tabakuak sekatzeko ta, bai, tabako asko eiten zan. Eta, geo ba, aizu, tabakuak kendu zianian hor beti herribeherak Astikuak zian, Asti basarrikuak zian herribehera asko hor, eta ba, urak asko hartzen zitun. Eta...

- Gogoratzen al zea zuk hola, uholde haundin bat, edo?

- Bai, ni akordatzen naiz behin ba, herribeherak kanpo fubolian herribeherak zian, soro haundi xamarrak zian eta izugarrizko eurtia ein zuan. Eta hor goian lbaita, eta hortxe setienbre aldea o hola zan, eta sagar urtia zan han ta izugarritako sagar pillak ekarri zian goitik behera etorri zian urakin, egurra ta abarra ta. Akordatzen naiz ba, sagarra jasotzen ta nola ibili giñan, ba, aita "sagarra jaso behar deu!" ta, hoiek akordatzen naiz. Ta geo ba, hor, Barrentzo azpi hortan, Sakeletxeko baserriya ta, hor berriz txalupakin 'e asko ateatzen zian, uholdia etortzen zian eta marea iyotzen zian, urak iyotzen zian eta orduan ba, txalupaz ta ateatzen zituen ganauak eta ta, bai, bai, bai, bai, bai. Oso beheian zan. Oaiñ ere, oaiñ ere, hor behian etxe txiki batzuk daude, ez? Bi etxe, ta ura, baria danian ta euriya asko-asko iten dunian, holako ebite haundiyak ez ditu oaiñ hola iten, lehen bai bezela baiño, ura dexente iyotzen da hor, e! Ura... zakarra ta abarra dao hor, baiño ura asko sortzen da hor, bai.

- Galera haundiyak orduan, e?

- Bai, orduan bai, hoixen, hoixen, bai, bai, bai, bai, bai.

9. Gari-jotzeak auzolanean. Lertxundik zeukan makina

- **Erref:** ZAR-027/010
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Gari-jotzeak auzolanean izaten ziren. Elkano aldeko Lertxundikoak zuen makina. Gero, gariak gurdiz eramaten zituzten beste etxe batera (Pipasenera), garia jotzera.</p>

10. Ibai ertzetan zumea hazten zen eta beraiek batu egiten zuten

- **Erref:** ZAR-027/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:18:10. **Bukatu:** 00:19:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Ibai ertzetan zumea biltzen ere aritzen ziren, beste batzuentzat, diru pixka bat ateratzeko.

11. Umeak etxean jaiotzen ziren emaginen laguntzarekin

- **Erref:** ZAR-027/013
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Bere seigarren umea nola izan zuen. Beraneanteak zituen etxean, eta beraiek ez enteratzeko egin behar izan zituenak. Lehen umeak beti etxean izaten ziren, emaginaren laguntzarekin. Azkena, zazpigarrena, Donostian izan zuen. Etxetxikiko Maria ere partera izan zen. Lehen ez zen izaten errekonozimendurik eta ezer. Haurdun geratu, eta minak hasten zirenean umea jaio.</p>

12. Asti ingurua nolakoa zen

- **Erref:** ZAR-027/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Asti inguruan ez zen beste ezer, ez futbol zelairik, ez autopistarik, ez ezer. Tabakoa egiten zen, erremolatxa...

13. Umetan esne-partitzen, eta ezkondu ondoren azokan

- **Erref:** ZAR-027/015
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Bere ama esne-partitzen ibiltzen zen, azokan ez. Baserritar guztiak ibiltzen ziren esne-partitzen. Kooperatiba plazan eta Txerri-kalean lotzen zituzten asto guztiak. Astotegia ere bazen. Pepita ezkondu ondoren hasi zen azokara joaten. Garai haretan oso giro ona zen, eta gainera oso urte onak izan ziren. Eramandako guztia saltzen zen. Gabonetan oiloak, eta kapoiak, eta denetik saltzen zen. Beraneante aberatsak ere izaten ziren, eta "mantazuriyak" (neskameak) joaten ziren azokara, otarra handiarekin.

14. Baserriko jeneroa: patata, ilarrak, lekak, babarrunak, piperrak...

- **Erref:** ZAR-027/017
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:31:25. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Udaberrian, lehenengo patata berria eta ilarrak; gero babarruna eta lekak, uda

hasierarako; udan piperrak eta tomatea. Piperra asko egiten zen lehen. Lehen igandetan ere

15. Janariak: egunero babarrunak eta sagarrak

- **Erref:** ZAR-027/018
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etxean batez ere babarruna jaten zen. Babarrun zuria eta garbantzua, eta arroza, jaietako janari goxuak izaten ziren. Egunero babarrunak, urdai mutur batekin. Postrerako sagarrak gehienetan. Garaia zenean, gereziak eta udareak.

16. Neskatoen lana, etxean amari laguntzea

- **Erref:** ZAR-027/019
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:34:30. **Bukatu:** 00:35:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Neska gazteen lana amari etxean laguntzea izaten zen. Goizean goiz mezetara joan, eta ondoren etxea txukundu.

17. Erromeriak eta udako jaiak: Sanpedroak, Sanpelayoak, Asuntzioak...

- **Erref:** ZAR-027/020
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:35:40. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Sasikon zazpi neska ziren, eta hantxe elkartzen ziren auzokoak. Ahoko soinua jo, eta gramola txiki bat ere bazuten, eta hantxe ibiltzen ziren. Udan, Sanpelayoak, Sanpedroak, eta Aiako Asuntzioak. Asuntzioetara Sasiko aitarekin joaten ziren, harek zazpi alaba zituelako, eta zaintzeko (soldaduak izaten zirelako neska bila). Usurbilgo jaietara ere joaten ziren.

18. Umetatik lanean: mutikoak Golfera, eta neskak umezain

- **Erref:** ZAR-027/022
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:38:55. **Bukatu:** 00:41:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Lehen umetan hasten ziren lanean. Mutikoek eta neskek lan ezberdinak izaten zituzten. Bere semeak ere oso gazterik hasi ziren Golfean laguntzen, 8-9 urterekin. Gaur egun karroak ere badaude laguntzeko, baina lehen oinez pilotak biltzen. Neska-koskorrak, behin 11 urtez gero, umezaintzen aritzen ziren.

19. Gaztetan kantu-dantzan, eta nobioarekin zinera

- **Erref:** ZAR-027/024
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:44:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Etxean kantuan ere egiten zuten. `Markesaren alaba´, eta horrelakoak. Ez zen ezer behar dantzarako. Denak ilusioa egiten zuen lehen. Eta behin nobiotan hasiz gero, batez ere zinera joan, Cine Modelora.</p>

20. Eguzkiarekin jaiki eta eguzkiarekin ohera

- **Erref:** ZAR-027/025
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:44:15. **Bukatu:** 00:46:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Eguzkiarekin jaiki eta erretiratzen ziren. Udan goizeko 5ak inguruan jaikitzen ziren; baratxuri-zopa eta esnea gosaldú, eta lanera. 12ak orduko etxera, eguzkiak gogor jotzen zuelako. Bazkaldú, siesta, eta, ondoren, berriro lanera. Iluntzean etxera, ganadu-lanak egin eta ohera. Eskolara joan aurretik ere, goiz jaiki, eta saioa egin: artoa jorratu, edo bakandu, edo...</p>

21. Gerraostean soldaduak Iñurritzan eta Asti inguruan. Sasiko kantina

- **Erref:** ZAR-027/028

- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:50:10. **Bukatu:** 00:53:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Beraien etxe inguruko baserrien zerrenda egiten du, zeintzuk dauden, zeintzuk falta diren... Soldaduen kontuak ere kontatzen ditu berriro. Soldaduak non izaten ziren ("Alto de Orio"n...). Sasikon kantina zuten, eta hantxe jaten zuten, eta soldaduen arropa garbitu ere bai... Beraien baserrian (Sakonetan) ere kantina txiki bat jarri zuten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com